

TXINA

Pekinetik gertu hiri erraldoi bat eraikiko dute eredu ekonomiko berri bat garatzeko

 **EKONOMIA** / joseangel.oria@gaur8.info

Munduko hiririk kutsatuenak dituen Txinak energia jasagarrien, teknologia berdearen eta bestelako hazkunde eredu baten erreferentzia nagusi bihurtu nahi du. Pekin hiriburutik gertu samar (ehunen bat kilometrora) Xiongango Gune Berria sortzeko asmoa iragarri dute agintariek, hemendik aurrerako garapena ezberdina izan dadin.

Xi Jinping presidenteak berak bultzatutako proiektuak datozen hamarkadetakoa Txina berriari emango dio hasiera, Alderdi Komunistako buruek nabarmendu dutenez. Punta-puntako teknologia, energia iturri garbiak, ekonomia eredu

berri eta berdeago bat, aldeztetik ondo pentsatutako hazkunde... orain arte Asiako herrialde erraldoiak erakutsi digun hazkunde ereduaren gabeziak konpontzeko, edo gabezia horiek eraginda. Xiongango Gune Berria eraikitzeko asmoa dutela iragarri berri dute Txinako Alderdi Komunistako Batzorde Zentralak eta Esta-

Gune Berria Pekinetik gertu eraikiko dute eta helburuetako bat hiriburuak jasan duen kutsadura arazo ikaragarria konponbidean jartzea litzateke. Aldi berean, pekindarrek egunero sufritzen dituzten auto ilara izugarriak ere saihestu nahi dituzte. GAUR8

tu Kontseiluak, eta, ezaugarriren bat azpimarratzekotan, handitasuna aukeratu beharko genuke, zingirak nagusi diren eremu zabalean hiri erraldoi bat eraikiko baitute, New York hiria bera txiki uzteko: erabat garatuta dagoenean, AEBetako hiriaren azaleraren hiru halako izango ditu.

HIRIBURUAREN ARAZOAK

Xiongango Gune Berria Pekinetik (22 milioi biztanle) gertu samar eraikiko dute (100 kilometro ingurura) eta helburuetako bat hiriburuak jasan duen kutsadura arazo ikaragarria konponbidean jartzea litzateke. Aldi berean, pekindarrek egunero sufritzen dituzten auto ilara ikaragarriak ere saihestu nahi dituzte agintari komunistek. «Miturteko berrirako estrategia erabakigarria da, Xi Jinping proiektu osoaren ardatz dela, Txinako Alderdi Komunistako Batzorde Zentralak egin duen



aukeraketa estrategiko eta historikoa», idatzi du Xinhua berri agentzia ofizialak.

Aipatu hedabidearen arabera, Xionganek herrialdearen historiaren kapitulu berri bat zabalduko du eta helburua litzateke bertan hazkunde eredu «koordinatu, integratzaile eta jasangarria» lortzea.

Artikulu sutsu batean, Xinhua dio Xiongan dela Txinaren orain arteko hazkundeak dituen arazoei behar duten erantzuna: «Hirien hedapen bizkorrak lekua utzi behar dio garapen orekatu eta integratzaileari. Txinak izan duen arrakastaren erreplika hutsa izan beharrean, hiri berri baten geroa kontatuko du».

Presidenteak nabarmendu du Xiongango eremuak garapenaren bidean egindako berrikuntzak erakusteko aukera emango duela, eta herritarren ongizatea eta ingurumenaren babesa lehentasunezkoak izango direla.

Ignacio Martinez UNAM Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko ikerlariak Xinhua agentziari esan dio Xiongango Gune Berriak frogatzen duela «garapen eredu ekonomiko berri baterantz doala herrialdea».

DIRUZALEKERIA TXINAN ERE

Hain egitasmo anbiziosoak sustatzaileei burutik pasa ere egin ez zaizkien arazoak ere eragiten ditu ordea. Agintariekin beren iragarpena apirilaren 1ean egin eta berehala, herritar askoren diruzalekeria lanean hasi zen. Bazter guztietatik joandako espekulatzaileak Xiongan hirian bildu ziren, lurra edo eraikinak orain erosi eta hemendik pixka batera sekulako negozioak egiteko asmoarekin. Bertako hedabideek esan zuten bi ordutan salneurriak bikoiztu egin zirela. Diruak eragindako erokeria, ustezko komunismoaren herrialdean.

Chen Bok Xionganera joan ziren herritarretako bat da. «Beijing News» egunkariari esan zionez, «hain urduri nengoenez, gau osoan ez dut lo egiterik izan. Proiektu hau zerutik eroritako oparia da». Bloomberg atariak idatzi zuen Xionganera doazen errepedeetan auto ilarak sortu zirela eta bertako



Itxura hau du egun, hegazkinetik ikusita, Xiongxian konderriak, energia geotermikoaren erabileran aitzindaria dena eta Xiongango Gune Berria hartuko duena.

GAUR8

hoteletan ohe bat lortzea ezinezko bihurtu zela.

Nola eragingo du diruzalekeriak agintarien asmoengan? Xiongango higiezinetakoa agintek astelehenean (bi egun geroago) negozio egin ezinik geratu ziren, Gobernuak salerosketak debekatzen dituen araua onartu ondoren. Reuters agentziak emandako informazioaren arabera, agintariekin bozgorailuak ere erabili zituzten lehen egun haietan higiezinaren inguruko espekulazioa legez kontrakoa dela gogorarazteko.

Agintek berak eragin du diruzalekeria, berehala aberasteko aukera herritarren aurrean jarrita. CGTN telebista kateak, esaterako, adierazi du itxura guztien arabera Xiongan «Txinako hurrengo Pudong» izango dela. Shanghai hiriaren ekialdeko zatia da Pudongeko Gune Berria, herrialdeko gunerik aberatsenetakoa gaur egun. Orain hamar-kada batzuk nekazaritza eremu bat besterik ez zen, baina Pekingo agintariekin hartu zituzten erabakien eraginez (bertan kokatu zuten Shanghaiko Bursan, Asiako garrantzitsuenak, esaterako), etxe orratz ikusgarriak betetako eremu bihurtu da. 2010ean bost milioitik gora biztanle zituen.

Hedabide ofizialek Shenzhengoko Gune Ekonomiko Bereziarekin ere alderatu dute Xiongango proiektua. Gaur egun herrialdeko hamar hiri handien artean dagoena herri arrantzaletatik bat izan zen 1970eko hamarkadako

Xiongango Gune Berria



GARA

«Hirien hedapen bizkorrak lekua utzi behar dio garapen orekatuari. Txinak izan duen arrakastaren erreplika hutsa izan beharrean, hiri berri baten geroa kontatuko du»

Agintariekin beren iragarpena egin eta berehala, bazter guztietatik joandako espekulatzaileak bildu ziren, lurra edo eraikinak erosi eta aurrerago negozio egiteko asmoarekin

amaiera arte, agintariekin Gune Berria sortzea erabaki zuten arte. Hong Kong hiritik gertu egotearen abantailez baliatu zen ordura arte izan ez zuen hazkunde aurrerara ateratzeko. Hamabi milioi biztanle zituen iaz. Asiako Silicon Valley deitu izan zio, bertan baitute egoitza Txinako teknologia konpainia arrakastatsuenek.

AZPIEGITURA BERRIAK

Xiongango Gune Berria Pekin, Tianjin eta Shijiazhuang Hebei probintziako hiriburuaren artean eraikiko dute. Hasiera batean 100 kilometro koadroko azalera izango du, 2000eko aurrerago eta 2.000 kilometro koadrokoa erabat garatuta dagoenean. Aierportu, trenbide eta errepede berrien eraikuntza eragingo du, eta, Ignacio Martinez mexikarraren iritziz, «hezkuntza eta osasuna ere suspertuko ditu».

Gainera, Pekin hiriburuak gaur egun hartzen dituen makina bat zerbitzu Xionganera eramango dituzte. Era horretan hiriburuak populazioak behera egitea espero dute, eta, aldi berean, kutsadura arazoak murriztea. «Ingurumena babestea lehentasunezkoa izango da, agintek ez baitu nahi ohitura zaharkituekin segitzea, hau da, aurrena kutsatu eta gero tratamendua ezarri. Herritarrak inguru seguruago eta garbiago batean biziko dira», esplikatu du Xinhua agentziak. Hiriburuak egun hartzen dituen jarduerak ekonomikoaren zati bat bertatik



aterata, pekindarrei gutxiago kostatuko zaie lanera joatea eta zerbitzuak dauden lekuetatik gertuago biziko dira. Garraioa jasangarriagoa izango da.

Handitasunarekin batera, Gune Berriaren beste ezaugarri garrantzitsu bat energia iturri garbien aldeko apustua da, Txinan hemendik aurrera egiten diren hirientzako eredu izango da, agintarien arabera. Datozen urteetan erreaktore nuklear gehien eraikiko dituen herria da Txina, eta, aldi berean, eguzkiaren (%80ko hazkundea iaz) eta haizearen (%12koa) indarra baliatzeko ahalegin gehien egiten ari dena. Xionganen energia geotermikoak beste horiek baino garrantzia handiagoa izango du.

ENERGIA GEOTERMIKOA

Izan ere, Gune Berria hartuko duen Xiongxián konderria da egun bere energia kontsumo guztia iturri garbi horretatik ateratzen duen bakarra. Sinopec konpainia publikoak esan du Xiongan aitzindari izango dela energia geotermikoari dagokionez, eta iturri hori erabilita 2020rako «ikatzik gabeko hogeia hiri» sortu nahi dituela.

«Ikatza erabiltzen genuen ne-guan berotzeko, urtean zortzi tona inguru. Baina sekulako kutsadura sortzen du ikatzak eta garestia da –dio Qian Zhangtun Xiongxiango herritarrak–. Sistema geotermikoa erabiltzen hasi

ginen eta gastuak erdiraino murriztu dira». Sun Caisia Sinopec konpainiako langileak egindako kalkuluen arabera, «azken zortzi urteotan ikatzaren kontsumoa milioi bat tonatan murriztu du-gu. Ia barruti osoari ematen diogu berokuntza zerbitzua. Egun ikatzik gabeko eskualdea dela esan daiteke».

Xiongan hartuko duen eremu-
an zingira ugari dago eta bertako ura erabiltzen dute her-
ritarrek. 143 laku daude; 360 ki-
lometro koadroko azalera. Bai-
yangdian izenekoa Txinako ipar-
raldeko handiena da eta gu-
nearen erdi-erdian dago.

Wang Xiaoye ekologistak la-
kuetako hegaztiak babestea du
helburu. Pozik dago proiektua-
rekin: «Abereen babesa indartu
eta lana hobeto koordinatuko
da, baina kezkatzen nau horren-
beste eraikin zutitzeak inguru-
menari sekulako kaltea eragin
diezaiokeela».

Pekinek egun hartzen dituen zerbitzu asko Xionganera eramango dituzte. Era horretan hiriburuko populazioak behera egitea espero dute. Eta kutsadura murriztea

«Ingurumena babestea lehentasunezkoa da, ez baitute ohitura zaharkituekin segitu nahi: aurrena kutsatu eta gero tratamendua ezarri. Inguru garbiago batean biziko dira»

Pudong barrutiko irudi ikusgarria, Huangpu ibaiaren beste aldetik, Shanghaitik, ikusita.
GAUR8

PORROT EGINDAKO AURREKARIAK

Gaur egun orkideak eta loto-loreak ekoizten dituen hiri txikia puntako teknologiaren eta berrikuntzaren munduko erreferentzia nagusia bihurtu nahi du Xi Jinping presidentek. New Yorken egoitza duen Morgan Stanley etxeak egin dituen kalkuluen arabera, hori lortzeko datozen hamabost urteetan 270.000 milioi euro inbertitu beharko ditu Gobernuak, eta horrela urtean %0,15 inguruko hazkundea eragingo zaio Txinako barne produktu gordinari. 5,4 milioi biztanle izatera iritsiko omen da Xiongan.

Baina datu horiek optimistegiak direla uste dute aditu batzuek. Shenzhenen eta Pudongen orain hamarkada batzuk arrakastatsua izan zen formulak porrot egin dezake Xionganen, Pekin hiriburutik urrutiegi baitago bertan egoitza duten konpainia teknologikoei, unibertsitateek eta konpainia handiek lekuz aldatzea erabaki dezaten. Eta horiek dauden lekuan geratuz gero, Xiongan eraikin dotorez betetako hiri fantasma bihurtu daiteke.

Lehen ere gertatu izan da. Esaterako, Tangshan hiriko Caofeidianen. 80.000 milioitik gora euro inbertitu ondoren, zorrak eta inoiz erabili ez diren eraikinak dira nagusi. Tangshan Hebei probintzian dago, Xiongan bezala, eta 7,5 milioi biztanle ditu. Hiriak 8 graduko lurrikara jasan zuen 1976an (255.000 hildako agintarien arabera, nahiz eta iturri batzuek kopuru hori hirukoiztu egiten duten), azken hamarkadotako seismorik tragikoena.

Porrot egindako proiektu ambiziosoen artean kokatzen dute Binhai-ko ere. Tianjin probintziako leku horretan ere sekulako inbertsioak egitekoak ziren, baina oraingoz ez dute lortu proiektuak nahi bezalako indarra hartzerik.

Wade Shepard ikerlaria ez dator bat ikuspegi horrekin. Txinak dozenaka «gune berri» sortu ditu hamarkadotan eta horietako asko ia hilda daudela badirudi ere, fenomenoari buruz liburu bat idatzi zuen gizonak uste du oraindik ezin dela esan proiektu horiek porrot egin dutenik, batzuk «aurrera ateratzen hasiak dira-eta. Ez dago hiri fantasmarik, Txinako garapenaren fase bat baino ez da».